XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egingo dira Justizia Administrazioko auzitegi-medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatu, proposatu eta izendatzeari buruzko Agindua betetzeko emandako ebazpenak, baldin eta Agindu honetan arautukakoren aurkakoak badira. Hala gertatuz gero, Agindu hau aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 21a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas Resoluciones se hubieren dictado en aplicación de la Orden de 20 de noviembre de 2003, sobre selección, propuesta y nombramiento de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, si bien exclusivamente en cuanto se opongan a lo dispuesto en la presente Orden, en cuyo caso se aplicará ésta.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2005.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

**1782**

EBAZPENA, 2005eko martxoaren 14koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, Justizia Administrazioko auzitegiko medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioen lan-poltsen deialdia egiten duen 2003ko abenduaren 29ko Ebazpena aldatzen duena.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakia) Aginte Judizialaren Lege Organikoa aldatu du, eta, ondorioz, beharrezkoa da 2003ko azaroaren 20ko Agindua indarreko araudira egokitzea; batik bat, Justizia Administrazioko kidegoen izenari eta horietan sartzeko eskatutako titulazioari dagokienez. Egokitzapen hori 2005eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez egin da.

Giza Baliabideen Zuzendaritzaren 2003ko abenduaren 29ko Ebazpena (253. EHAA, 2003ko abenduaren 29koa), Justizia Administrazioaren zerbitzu, fiskaltza eta organo judizialetako aldi baterako lanpostuetan lana egin nahi duten pertsonen zerrendak osatzeko eman zen. Ebazpen hori egin den erreformak ere ukitzen du, eta indargabetutzat ematen da 2005eko otsailaren 21eko Aginduan xedatutakoa urratzen duen heinean (Xedapen indargabetzaile bakarra).

Ekainaren 3ko JUS/1855/2004 Aginduaren bidez (2004ko ekainaren 17ko BOE eta 2004ko uztailaren 14ko EHAA), Justizia Administrazioko Ofizialen Kidegoan txanda irekiaz sartzeko hautaprobak gainditu zituzten hautagaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen. Maiatzaren 18ko JUS/1549/2004 Aginduaren bidez (2004ko ekainaren 1eko BOE eta 2004ko uztailaren 14ko EHAA), Justizia Administrazioko La-

**1782**

RESOLUCIÓN de 14 de marzo de 2005, del Director de Recursos Humanos, que modifica la de 29 de diciembre de 2003, por la que se convocan bolsas de trabajo de funcionarios/as interinos/as para cubrir plazas vacantes de los Cuerpos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes.

Tras la reforma de la Ley Orgánica del Poder Judicial operada por Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), resulta necesaria la adecuación de la Orden de 20 de noviembre de 2003 a la vigente normativa, básicamente en lo relativo a la denominación y titulación exigida para el ingreso en los distintos Cuerpos al servicio de la Administración de Justicia. Dicha adecuación ha tenido lugar por Orden de 21 de febrero de 2005.

La Resolución de 29 de diciembre de 2003, de esta Dirección de Recursos Humanos (BOPV n.º 253, de 29 de diciembre de 2003), se dictó con el objeto de configurar las relaciones de personas que desean trabajar en la cobertura temporal de plazas en órganos judiciales, Fiscalías y Servicios de la Administración de Justicia. Dicha Resolución resulta afectada también por la reforma operada, entendiéndose derogada en cuanto se oponga a lo dispuesto en la Orden de 21 de febrero de 2005 (Disposición Derogatoria Única).

Por Orden JUS/1855/2004 de 3 de junio (BOE de 17 de junio de 2004 y BOPV de 14 de julio de 2004), se aprueba y publica la relación definitiva de aspirantes que han superado las pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Oficiales de la Administración de Justicia, turno libre. Por Orden JUS/1549/2004 de 18 de mayo (BOE de 1 de junio de 2004 y BOPV de 14 de julio de 2004), se aprueba y publica la relación de-

guntzaileen Kidegoan txanda irekiaz sartzeko hautaprobak gainditu zituzten hautagaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen, eta maiatzaren 10eko JUS/1356/2004 Aginduaren bidez (2004ko maiatzaren 18ko BOE eta 2004ko uztailaren 14ko EHAA), Justizia Administrazioko Agenteen Kidegoan txanda irekiaz sartzeko hautaprobak gainditu zituzten hautagaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen. Eta azkenik, ekainaren 22ko JUS/2254/2004 Aginduaren bidez, 2003ko maiatzaren 27ko Ebazpenaren bitartez deitutako Auzitegiko Medikuen Kidego Nazionalean sartzeko oposizio-fasea gainditu zuten izangaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen eta Ikasketa Juridikoen Zentroan sartzea erabaki zen (2004ko uztailaren 8ko BOE).

Aginduaren aldaketa horren eta 2003ko Oposizioari dagokion hautespen-prozesua gainditu duten izangaien behin betiko zerrendaren argitalpenaren indarrez, 2003ko abenduaren 29ko Ebazpenean honako aldaketa hauek egin behar dira:

*Lehenengoa.–* Oro har, 2003ko abenduaren 29ko Ebazpenak Justizia Administrazioko Ofizialak, Laguntzaileak eta Agenteak aipatzen dituen lekuan, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoari, Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoari eta Laguntza Judizialeko Kidegoari buruz ari dela ulertuko da, hurrenez hurren.

*Bigarrena.–* Halaber, 2003ko abenduaren 29ko Ebazpenak Auzitegietako Medikuen Erregelamendu Organikoa eta Administrazio Judizialeko Ofizialen, Laguntzaileen eta Agenteen Erregelamendu Organikoa aipatzen dituen lekuan, Aginte Judizialaren Lege Organikoari —abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakia) emandako idatzian— eta haren arauzko garapenari buruz ari dela ulertuko da.

*Hirugarrena.–* Kendu egingo da 2.2 puntuaren 2. paragrafoa, eta proba praktikoa egitea ez da nahitaezko baldintza izango Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Tramitazioko eta Laguntza Judizialeko Kidegoen lan-poltsetan sartzeko. Hala ere, aurrekontu aurreikuspenek aukera uzten duten neurrian, prestakuntza informatikoko ikastaroak emango zaizkie arlo horretako prestakuntza behar duten pertsonei.

*Laugarrena.–* Izangaiek eskaera-orriari gaineratu behar dioten titulazioaren fotokopia konpultsatuari dagokionez:

• Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartzeko: Unibertsitateko diplomatuaren, ingeniari teknikoaren, arkitekto teknikoaren titulua edo baliokidea.

• Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoan sartzeko: Batxilergo titulua edo baliokidea.

finitiva de aspirantes que han superado las pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Auxiliares la Administración de Justicia, turno libre y por Orden JUS/1356/2004, de 10 de mayo (BOE de 18 de mayo de 2004 y BOPV de 14 de julio de 2004), se aprueba y publica la relación definitiva de aspirantes que han superado las pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Agentes de la Administración de Justicia, turno libre. Y por ultimo por Orden JUS/2254/2004, de 22 de junio, por la que se aprueba y publica la relación definitiva de aspirantes que han superado la fase de oposición para ingreso en el Cuerpo Nacional de Médicos Forenses, convocadas por Resolución de 27 de mayo de 2003 y dispone el ingreso en el Centro de Estudios Jurídicos (BOE de 8 de julio de 2004).

En virtud de la citada modificación de la Orden y de la publicación de la relación definitiva de aspirantes que han superado el proceso selectivo correspondiente a la oposición del 2003, procede la modificación de la Resolución de 29 de diciembre de 2003 en los siguientes puntos:

*Primero.–* Con carácter general, todas las referencias a los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia contenidas en la Resolución de 29 de diciembre de 2003, deben entenderse hechas, respectivamente, a los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa, y Auxilio Judicial.

*Segundo.–* Igualmente, cualquier referencia hecha en la Resolución de 29 de diciembre de 2003 a los Reglamentos Orgánicos de Médicos Forenses, Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia se entenderá referida a la Ley Orgánica del Poder Judicial en la nueva redacción dada por Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), y su correspondiente desarrollo reglamentario.

*Tercero.–* Se suprime el segundo párrafo del punto 2.2, y no se realizará la prueba práctica como requisito indispensable para formar parte de las bolsas de trabajo del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa y de Auxilio Judicial. No obstante, y, en la medida que las disponibilidades presupuestarias lo permitan, se podrá impartir un curso de capacitación informática a las personas que requieran formación en este ámbito.

*Cuarto.–* Con respecto a la fotocopia compulsada de la titulación exigida y que los/as aspirantes deberán acompañar con su solicitud:

• Para el Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa: Título de Diplomado Universitario, Ingeniero Técnico, Arquitecto Técnico o equivalente.

• Para el Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa: Título de Bachiller o equivalente.

• Laguntza Judizialeko Kidegoan sartzeko: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.

*Bosgarrena.–* Erreferentziazko oposizioa 2003koa da, hau da, deitu zen azkenekoa eta behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta amaitu zena.

*Seigarrena.–* Epea zabalduta dago honako pertsona hauentzat:

• Poltsetan pertsona berriak sartzea: 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren 2.4.b artikuluan xedatuta dagoenaren indarrez, eta deitu eta amaituta dagoen azken deialdia 2003koa denez gero, oposiziogile horientzat eskabideen epea zabalduko da jadanik eguneratuta egongo diren poltsak abian jartzeko. Orain eratzen ari den lan-poltsa 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren eta 2003ko abenduaren 29ko Ebazpenaren (abenduaren 26ko eta 29ko EHAAn argitaratuak, hurrenez hurren) ondorio da. Poltsan sartzeko eskabideak aurkezteko epea abenduaren 30ean hasi zen eta urtarrilaren 28an amaitu zen.

• Giza Baliabideen zuzendariaren 2003ko abenduaren 29ko Ebazpenaren bidez deitutako poltsetan sartzea eskatu ez duten eta Autonomia Erkidego honetan 2003. urtean deitu ziren oposizioei dagokien lehen azterketa egin dutenek bakarrik eska dezakete poltsetan sartzea.

Eskatzaileek abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan (2003-12-26ko BOE, 309. zenbakia) eta hari dagokion arauzko garapenean eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte. Karrerako funtzionarioek edo lankontratuko langile finkoek ez dute poltsetan sartzeko aukerarik izango. Horrez gain, zerrendan sartzeko honako hau eskatuko da: 2005. urtean 65 urte edo gehiago ez betetzea.

2003ko abenduaren 29ko Ebazpenaren bidez deitutako poltsetan sartzea eskatu zuten oposiziogileen kasuan, Autonomia Erkidego honetan 2003. urtean deitutako oposizioetan parte hartu izana merezimendu gisa baloratuko da, ezarritako baremoaren arabera.

• Poltsetan sartzea eskatu zuten pertsonen datuak eguneratzea: Era berean, 2003ko azaroaren 20ko Agindua aldatzen duen 2005eko otsailaren 21eko Aginduaren Bigarren Xedapen Iragankorrak aipatzen dituen pertsonentzat epea irekiko da. Hau da, lehendik poltsetan sartzea eskatu zuten (ofizioz edo 2003-12-30etik 2004-01-28ra arte aurkeztutako eskaeraren bitartez) eta beraien ustez kontuan hartuak izan ez diren baldintzak edo merezimenduak badituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzten eta eskaera egiterakoan egindako akatsak zuzendu behar dituzten pertsonentzat.

• Para el Cuerpo de Auxilio Judicial: Título de Graduado en ESO o equivalente.

*Quinto.–* La oposición de referencia, que es la ultima convocada y finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva es la de 2003.

*Sexto.–* Procede la apertura del plazo para las siguientes personas:

• Inclusión de nuevas personas en las bolsas: en virtud de lo dispuesto en el artículo 2.4.b de la Orden de 20 de noviembre de 2003, y dado que la ultima oposición convocada y finalizada es la de 2003, se abrirá el plazo de solicitudes, para estos opositores al objeto de poner en funcionamiento unas bolsas ya actualizadas. La bolsa de trabajo que se está constituyendo actualmente deriva de la Orden de 20 de noviembre de 2003 y de la Resolución de 29 de diciembre de 2003, publicada en el BOPV los días 26 y 29 de diciembre, respectivamente. El plazo para presentar solicitudes de inclusión en la bolsa se inició el 30 de diciembre y finalizó el 28 de enero.

• Únicamente pueden solicitar su inclusión en las bolsas aquellas personas que, no habiendo solicitado la inclusión en las bolsas convocadas por Resolución de 29 de diciembre de 2003, del Director de Recursos Humanos, se hubieran presentado al primer examen correspondiente a las oposiciones convocadas en esta Comunidad Autónoma en el año 2003.

Los solicitantes deberán cumplir los requisitos exigidos en la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre (BOE n.º 309 de 26-12-2003), y su correspondiente desarrollo reglamentario. Los/as solicitantes que tengan la condición de funcionarios/as de carrera o personal laboral fijo no podrán acceder a las bolsas. Además, se exigirá para el ingreso en la lista: no haber cumplido 65 o más años en el transcurso del año 2005.

En el caso de opositores/as que ya hubieran solicitado formar parte de las bolsas convocadas por la mencionada Resolución de 29 de diciembre de 2003, su participación en las oposiciones convocadas en esta Comunidad Autónoma en el año 2003 supondrá la valoración de la misma como mérito, según el baremo establecido.

• Actualización de datos de las personas que ya solicitaron su integración las bolsas: también se abrirá el plazo para las personas a las que se hace referencia en la Disposición Transitoria Segunda de la Orden de 21 de febrero de 2005, que modifica la de 20 de noviembre de 2003. Esto es, las personas que ya solicitaron su inclusión en las bolsas (de oficio o mediante solicitud presentada entre el 30-12-2003 y el 28-01-2004) y tengan que aportar la documentación acreditativa de estar en posesión de los requisitos y/o méritos que estimen que no se les han tenido en cuenta, así como subsanar errores en que incurrieron a la hora de realizar la solicitud.

*Zazpigarrena.–* Eskaintzak aurkeztea edo datuak ematea eguneratzeko.

7.1.– Autonomia Erkidego honetan 2003. urtean deitu ziren oposizioei dagokien lehen azterketa egin zutenek Ebazpen honen I. Eranskin gisa argitaratzen den eskaera-eredua aurkeztuko dute, deialdian parte hartzeko eskatuz. Eskaria, Giza Baliabideen zuzendariari zuzenduta, hamar egun naturaleko epearen barruan aurkeztu behar da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epe bera izango dute (10 egun natural) poltsetan sartzea eskatu zuten (ofizioz edo 2003-12-30etik 2004-01-28ra arte aurkeztutako eskaeraren bitartez) eta beraien ustez kontuan hartuak izan ez diren baldintzak edo merezimenduak badituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzten eta eskaera egiterakoan egindako akatsak zuzendu behar dituzten pertsonek. 2005eko urtarrilaren 28an www.justizia.net eta www.juslan.ej-gv.net web orrietan eta EATetako iragarki-tauletan argitaratu zen poltsetan parte hartzeko izangaien informazio-zerrenda, titulazio maila, euskarako hizkuntz eskakizunak eta eskatutako lurralde-eremua adieraziz. Urtarrilaren 28az geroztik interesatuek informazio-zerrenda horiei loturiko alegazioak eta agiriak aurkeztu dituzte. Beraz ez da beharrezkoa alegazio horiek berriro aurkeztea, lehendik aurkeztu badira.

7.2.– Ondorengo paragrafoan aipatzen diren egoitza administratiboetan edo posta ziurtatuz aurkeztu behar dira eskabideak eta dokumentazioa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak ezarritakoarekin bat edo aipatu legezko testuan aurreikusitako beste edozein eran.

7.3.– Honako egoitza administratibo hauetan jaso ahal izango dira eskabideen ereduak:

• Arabako EAT. Gasteiz etorbidea, 18. 01008 Vitoria-Gasteiz.

• Bizkaiko EAT. Buenos Aires kalea 6, 6. 48001 Bilbao.

• Gipuzkoako EAT. Teresa Kalkutakoa plaza 1, 5. 20012. Donostia-San Sebastián.

Eredu hori www.justizia.net eta www.juslan.ej-gv.net. web orrietatik ere har daiteke.

7.4.– Lan-poltsetan parte hartzeko izangai berriek, hau da, 2003. urtean Autonomia Erkidego honetan deitutako oposizioei zegokien lehen azterketa egitera aurkeztu ziren pertsonek, eskabidearekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

*Séptimo.–* Presentación de solicitudes o aportación de datos para actualización.

7.1.– Aquellas personas que se hubieran presentado al primer examen correspondiente a las oposiciones convocadas en esta Comunidad Autónoma en el año 2003 presentarán el modelo de solicitud que se publica como anexo I de la presente Resolución, interesando tomar parte en la convocatoria. Dicha solicitud se dirigirá al Director de Recursos Humanos y se presentará en el plazo de 10 días naturales, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

Este mismo plazo (10 días naturales) será para los/as solicitantes (de inclusión en las bolsas, de oficio o mediante solicitud presentada entre el 30-12-2003 y el 28-01-2004) que tengan que aportar la documentación acreditativa de estar en posesión de los requisitos y/o méritos que estimen que no se les han tenido en cuenta, así como subsanar errores en que incurrieron a la hora de realizar la solicitud. El día 28 de enero de 2005 se publicó en las páginas web www.justizia.net y www.juslan.ej-gv.net y en los tablones de anuncios de las EATs listado informativo de aspirantes a formar parte de las bolsas, indicando nivel de titulación, perfil lingüísticos-nivel de euskera y ámbito territorial solicitado. Desde el 28 de enero los/as interesados/as han presentado alegaciones y documentación en relación a dichos listados informativos. Por lo tanto no es necesario volver a presentar dichas alegaciones de nuevo los que lo hayan hecho.

7.2.– Las solicitudes y documentación deberán presentarse en las dependencias administrativas que se indican en el apartado siguiente o remitirse por correo certificado, conforme a lo establecido en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o por cualquier otra de las restantes modalidades previstas en el referido texto legal.

7.3.– El modelo de instancia será facilitado en las siguientes dependencias administrativas:

• Unidad Técnica de Gestión (EAT) de Álava, Avda. Gasteiz, 18. 01008 Vitoria-Gasteiz.

• Unidad Técnica de Gestión (EAT) de Bizkaia, Buenos Aires, 6 - 6.º, 48001 Bilbao.

• Unidad Técnica de Gestión (EAT) de Gipuzkoa, Plaza Teresa de Calcuta, 1 - 5.º, 20012-Donostia-San Sebastián.

Dicho modelo también puede ser descargado de las páginas web www.justizia.net y www.juslan.ej-gv.net.

7.4.– Los nuevos aspirantes a formar parte de las bolsas, es decir, aquellas personas que se hubieran presentado al primer examen correspondiente a las oposiciones convocadas en esta Comunidad Autónoma en el año 2003, deberán acompañar a la solicitud los siguientes documentos:

a) Orokorrak:

• Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

• Kidego bakoitzean sartzeko eskatzen den titulazioaren fotokopia konpultsatua eta bereziki:

– Auzitegiko medikuen kidegorako: Medikuntza eta Kirurgiako lizentziatura.
– Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartzeko: Unibertsitateko diplomatuaren, ingeniari teknikoaren, arkitekto teknikoaren titulua edo baliokidea.
– Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoan sartzeko: Batxilergo titulua edo baliokidea.
– Laguntza Judizialeko Kidegoan sartzeko: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.

b) Justizia Administrazioan egindako zerbitzuak.

Ez da beharrezkoa izango Autonomia Erkidego honetan egindako zerbitzuen egiaztagiriak aurkeztea, ofizioz sartuko baitira. Hala ere, Autonomia Erkidego honetatik kanpo bitarteko funtzionario gisa egindako zerbitzuak egiaztatzeko, jardunean egondako organo edo zerbitzuetako fiskalburuaren, institutuburuaren, idazkari judizialaren edo gerentearen agiria aurkeztu beharko da, Ebazpen honen II. eranskineko ereduari jarraiki.

c) Nahiz eta ez den eskatzen kreditatzen duen agiririk, eskabidean honakoak adierazi behar dira:

• Aipatu funtzionarioen kidegoetan sartzeko Autonomia Erkidego honetan egindako azken deialdiko probetan parte hartu izana, orain sartzea eskatu duen Kidegorako. Erreferentziazko oposizioa 2003koa da, hau da, deitu zen azkenekoa eta behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta amaitu zena.

• Aurreko hiru oposizioetan ariketak gainditu izana, lurralde-eremua edozein dela ere, 2000ko deialditik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan deialdirik izan ez bada.

***Zortzigarrena.***– Aholku Batzordearen osaera aldatu da, Giza Baliabideen Zuzendaritzako teknikari bat batzordekide gisa sartuz.

***Bederatzigarrena.***– Baloraziorako prozedura.

9.1.– Kidego bakoitzaren lan-poltsan izangaien hurrenkera merezimendu orokorren araberakoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den azken eguna arte hartuko dira kontuan merezimendu horiek.

9.2.– Merezimendu orokorrak eta horien baremazioa honako hauek izango dira:

a) Egindako zerbitzuak: Puntu 1 emango da, kidego jakin bateko lan-poltsan sartzeko, kidego horretan Justizia Administrazioko bitarteko funtzionario legez lanean emandako urte oso bakoitzeko. Hortik beherako epealdiak proportzionalki zenbatuko dira (0,0027777 eguneko, 30 eguneko hilabeteak ezarriz), eta gehienez 15 puntu lortu ahal izango dira.

a) Generales:

• Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

• Fotocopia compulsada de la titulación exigida para el ingreso en cada Cuerpo y particularmente:

– Para Médico Forense: Licenciatura en Medicina y Cirugía.
– Para el Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa: Título de Diplomado Universitario, Ingeniero Técnico, Arquitecto Técnico o equivalente.

– Para el Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa: Título de Bachiller o equivalente.
– Para el Cuerpo de Auxilio Judicial: Título de Graduado en ESO o equivalente.

b) Servicios en la Administración de Justicia:

No será preciso aportar certificado alguno de los servicios prestados en esta Comunidad Autónoma, los cuales serán incluidos de oficio. No obstante, para acreditar los servicios como funcionario/a interino/a prestados fuera de esta Comunidad Autónoma se aportará el certificado del/de la Fiscal Jefe, Director/a del Instituto, Secretario/a Judicial o Gerente de los órganos o servicios correspondientes, según modelo que se acompaña como anexo II a la presente Resolución.

c) No se requerirá certificado alguno que acredite, pero deberán ser alegados en la solicitud, en su caso:

• La participación en las pruebas de la última convocatoria celebrada en esta Comunidad Autónoma para el ingreso en los meritados Cuerpos de funcionarios/as, para el Cuerpo en el que solicita la inclusión. La oposición de referencia que es la ultima convocada y finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva, es la de 2003.

• La superación de ejercicios en las tres oposiciones anteriores, en cualquier ámbito territorial si no ha habido convocatoria en el País Vasco, a partir de la convocatoria del año 2000.

***Octavo.***– Se modifica la composición de la Comisión asesora, incluyendo como vocal un Técnico adscrito a la Dirección de Recursos Humanos.

***Noveno.***– Procedimiento de valoración.

9.1.– Los/as aspirantes serán ordenados/as en la bolsa de trabajo de cada Cuerpo tomando en consideración los méritos generales. Dichos méritos se tendrán en cuenta hasta el último día de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

9.2.– Los méritos de carácter general y su baremación serán los siguientes:

a) Servicios prestados: 1 punto por cada año completo de servicios como funcionario/a interino/a de la Administración de Justicia en el Cuerpo en cuya bolsa se pretende ser incluido/a, computándose proporcionalmente los períodos inferiores (0,0027777 por día, estableciéndose los meses como de 30 días), con un máximo de 15 puntos.

b) Sartzeko probak:

1.– 12 puntu emango dira, sartu nahi den kidegorako deitutako azken oposizioaren ariketa guztiak gainditu izanagatik. Erreferentziazko oposizioa 2003koa da, hau da, deitu zen azkenekoa eta behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta amaitu zena.

2.-5 puntu emango dira, sartu nahi den kidegorako deitutako azken oposizioaren lehen ariketa gainditu izanagatik. Erreferentziazko oposizioa 2003koa da, hau da, deitu zen azkenekoa eta behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta amaitu zena.

b.1 eta b.2 idatz-zatiak ezin izango dira metatu.

3.– Puntu 1, sartu nahi den kidegorako deitutako azken oposizioaren lehen ariketara aurkeztu izanagatik, nahiz eta gainditu ez. Erreferentziazko oposizioa 2003koa da, hau da, deitu zen azkenekoa eta behin betiko zerrenda BOEan argitaratuta amaitu zena.

Horrez gain, azken oposizioaren aurreko hiru oposizioetan gainditutako ariketa bakoitza puntu 1ekin baloratuko da, 2000ko deialditik aurrera.

c) Titulazioak:

1.– Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Tramitazioko eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lan-poltsetarako, 4 puntu emango zaizkie kasuan kasuko kidegoan sartzeko eskatutako titulazioa baino maila altuagokoa duten eskatzaileei.

2.– Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko lan-poltsarako, 2 puntu emango zaizkie Zuzenbidean Lizentziatuei.

3.– Prozesu eta Administrazio Tramitazioko Kidegoko lan-poltsarako, 2 puntu emango zaizkie Lizentziatuei.

4.– Laguntza Judizialeko Kidegoko lan-poltsarako, 2 puntu emango zaizkie diplomatura bat duten edo Lizentziatura bateko 3 kurtso gainditu dituztenei.

5.– Auzitegiko Medikuen Kidegoko lan-poltsarako, honako merezimendu hauek ere baloratuko dira:

– Psikiatria, Traumatologia edo Anatomia Patologikoko espezialitateengatik, 6 puntu emango dira espezialitate bakoitzeko.

– Lege eta Auzitegiko Medikuntzako espezialitateagatik, 3 puntu emango dira.

d) 2003ko abenduaren 29ko Ebazpenaren 5.2.d artikulua, euskara jakiteari buruzkoa, aldatu egin da eta honela baloratuko dira hizkuntz eskakizunak edo horien baliokideak:

– 1. hizkuntz eskakizuna: puntu 1.
– 2. hizkuntz eskakizuna: 2 puntu.

b) Pruebas de acceso:

1.– 12 puntos por haber superado todos los ejercicios de la última oposición convocada para el acceso al mismo Cuerpo en el que pretende ser incluido/a. La oposición de referencia, que es la ultima convocada y finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva, es la de 2003.

2.– 5 puntos por haber superado el primer ejercicio de la última oposición convocada para el acceso al mismo Cuerpo en el que se pretende ser incluido/a. La oposición de referencia, que es la ultima convocada y finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva, es la de 2003.

Los apartados b.1 y b.2 no serán acumulables.

3.– 1 punto por haberse presentado al primer ejercicio de la última oposición convocada para el acceso al mismo Cuerpo en el que pretende ser incluido/a, y lo haya suspendido. La oposición de referencia, que es la ultima convocada y finalizada con la publicación en el BOE de la relación definitiva, es la de 2003.

Además, cada uno de los ejercicios aprobados en las tres oposiciones anteriores a la última se valorará con 1 punto, a partir de la convocatoria del año 2000.

c) Titulaciones:

1.– Para las bolsas de trabajo de los Cuerpos de Gestión Procesal y Administrativa, Tramitación Procesal y Administrativa, y Auxilio Judicial, 4 puntos para los/as solicitantes que posean una titulación inmediatamente superior a la exigida para el ingreso en el Cuerpo de que se trate.

2.– Para la bolsa de trabajo del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, 2 puntos para los/as solicitantes que sean Licenciados/as en Derecho.

3.– Para la bolsa de trabajo del Cuerpo de Tramitación Procesal y Administrativa, 2 puntos para los/las solicitantes que posean una Licenciatura.

4- Para la bolsa de trabajo del Cuerpo de Auxilio Judicial, 2 puntos para los/las solicitantes que posean una Diplomatura o hayan superado 3 cursos de Licenciatura.

5.– Para la bolsa de trabajo del Cuerpo de Médicos Forenses, se valorarán, además, los siguientes méritos:

– Por especialidad en Psiquiatría, Traumatología o Anatomía Patológica, 6 puntos por cada una de estas especialidades.

– Por especialidad en Medicina Legal y Forense, 3 puntos.

d) Se da nueva redacción al artículo 5.2.d de la Resolución de 29 de diciembre de 2003, que trata de los conocimientos del euskera, valorándose la acreditación de perfiles lingüísticos o sus equivalentes de la siguiente manera:

– Perfil 1: 1 punto.
– Perfil 2: 2 puntos.

– 3. hizkuntz eskakizuna: 4 puntu.
– 4. hizkuntz eskakizuna: 6 puntu.

Hala eskatzen dutenei proba bat egingo zaie eskakizuna kreditatzeko, baldin eta ezin badute hizkuntz eskakizuna kreditatu. 2004ko urriaren 29an eta azaroaren 11n egindako deialdian proba hori egin dutenek edo egiteko aukera izan dutenek ezin izango dute proba hori egin.

Eskatzaileek hizkuntz eskakizunik edo baliokiderik kreditatu ezin badute, Kultura Sailburuaren 1989ko azaroaren 17ko Aginduan araututako helduen euskalduntzeko prozesuaren hamabi mailak gainditu izana baloratuko da:

• HABEren curriculum zaharreko 1etik 6rako mailak: 0,1 puntu maila bakoitzeko. Gehienez 0,6 puntu emango dira.

• HABEren curriculum zaharreko 6tik 8rako mailak: 0,1 puntu maila bakoitzeko. Gehienez 0,8 puntu emango dira.

• HABEren curriculum zaharreko 8tik 12rako mailak: 0,1 puntu maila bakoitzeko. Gehienez 1,2 puntu emango dira.

Halaber, horrela baloratuko da Kultura Sailburuak 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartutako helduen euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako mailak kreditatzea:

• Lehenengo maila: 0,6 puntu.

• Bigarren maila: 0,9 puntu.

• Hirugarren edo laugarren maila: 1,2 puntu.

Hizkuntz eskakizunen puntuaketari ezin izango zaizkio gehitu HABEren Curriculum zaharrean ezarritako mailen edo Kultura Sailburuak 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez onartutako helduen euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako mailen puntuaketa; eta, ondorioz, guztietan puntuaketa handiena duena baloratuko da.

Adierazitako Aginduek araututako euskara mailak baloratu ahal izateko, maila horiek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera kreditatu ote diren kontuan izango da.

9.3.– Izangaien hurrenkera 9.2. paragrafoan aipatutako merezimendu orokorren baremoa ezarrita lortutako puntuen araberakoa izango da. Berdinketa suertatuko balitz, merezimenduen hurrenkeran ezarritako ordenan puntu gehiago izateak hautsiko luke berdinketa. Berdinketak iraungo balu, berau apurtzeko kontuan hartuko da lehentasun alfabetikoa, azken enplegu publikoaren eskaintzari zegokion letratik hasita (x letra).

*Hamargarrena.*– Izangaiak onartzea.

Hautatu direnen behin-behineko zerrenda egin ondoren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako EATetako iragar-

– Perfil 3: 4 puntos.
– Perfil 4: 6 puntos.

Se realizará una prueba para acreditar los perfiles lingüísticos a aquellas personas que no los puedan acreditar, y que así lo soliciten. No podrán realizar dicha prueba los que la hayan realizado o hayan tenido oportunidad de hacerla en la convocatoria realizada al efecto los días 29 de octubre y 11 de noviembre de 2004.

En el caso de que no posea ningún perfil lingüístico o equivalente acreditado, se valorará la superación de cada uno de los doce niveles del proceso de euskaldunización de adultos fijados por Orden de 17 de noviembre de 1989, del Consejero de Cultura:

• Niveles del 1 al 6 del antiguo Currículo de HABE: 0,1 puntos por nivel con un máximo de 0,6 puntos.

• Niveles del 6 al 8 del antiguo Currículo de HABE: 0,1 puntos por nivel con un máximo de 0,8 puntos.

• Niveles del 8 al 12 del antiguo Currículo de HABE: 0,1 puntos por nivel con un máximo de 1,2 puntos.

Asimismo, se valorará la acreditación de los diferentes niveles establecidos por el Currículo Básico para la enseñanza del euskera a adultos, aprobado por Orden de 24 de enero de 2000, de la Consejera de Cultura de la siguiente manera:

• Primer nivel: 0,6 puntos.

• Segundo nivel: 0,9 puntos.

• Tercer o cuarto nivel: 1,2 puntos.

No serán acumulables las puntuaciones correspondientes a los diferentes perfiles lingüísticos, a los niveles de euskera del antiguo Currículo de HABE y a los niveles establecidos por el nuevo Currículo Básico para le enseñanza del Euskera a adultos, aprobado mediante Orden de 24 de enero de 2000, de la Consejera de Cultura, valorándose, en su caso, la puntuación más alta.

La valoración de los niveles de euskera establecidos por las mencionadas Órdenes se tendrá en cuenta si dichos niveles han sido acreditados a partir del 1 de enero de 2003.

9.3.– Los/as aspirantes se ordenarán conforme a la puntuación obtenida por la aplicación de los baremos contemplados en el apartado 9.2 relativo a Méritos Generales. En caso de empate, se ordenarán por la mayor puntuación obtenida según el orden establecido en dichos méritos. De persistir dicho empate, se tendrá en cuenta la prioridad alfabética, comenzando por la letra correspondiente a la última oferta de empleo público (letra x).

*Décimo.*– Admisión de aspirantes.

Una vez elaborada la relación provisional de los/as seleccionados/as debidamente ordenada y clasificada, in-

ki-tauletan eta www.justizia.net eta www.juslan.ej-gv.net web orrietan egongo da ikusgai. Zerrenda behar bezala ordenatuta eta sailkatuta agertuko da, izena, deiturak, nortasun agiri nazionala, puntuaketa eta hurrenkera zenbakia adieraziz.

Interesatuek 10 eguneko epea izango dute behin-behineko ebazpenaren aipamena EHAAn argitaratu ondoren, Giza Baliabideen Zuzendaritzan poltsaren edozein daturi buruzko erreklamazioa aurkezteko. Erreklamazioak beraiek egiteko epean amaitu eta hurrengo hilabetean erabakiko dira Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaren bidez. Ebazpena interesatu bakoitzari jakinaraziko zaio.

*Hamaikagarrena.–* Lan-poltsan onartutakoen behin betiko zerrenda.

Behin betiko lan-poltsa behin-behinekoa izan den iragarki-taula beretan egongo da ikusgai eta behin betiko ebazpenaren aipamena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Behin betiko lan-poltsetan ezin izango dira aldaketak egin 2003ko azaroaren 20ko Aginduak (2003ko abenduaren 26ko EHAA) aurreikusitako kasuetatik kanpo, zeina 2005eko otsailaren 21eko Aginduak aldatu duen.

*Hamabigarrena.–* Errekurtsoak.

Deialdi honek ez du Administrazio bidea agortzen. Haren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia sailburuordeari hilabeteko epean, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Aldi berean, deialdi honetatik eratorritako ekintza administratibo guztiak aurkatu ahal izango dira Justizia sailburuordearen aurrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko martxoaren 14a.

Giza Baliabideen zuzendaria,
JULIAN ASURMENDI BARRIO.

dicando nombre, apellidos, documento nacional de identidad, puntuación y número de orden, será expuesta en los tablones de anuncios de las EAT de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y en las páginas Web www.justizia.net y www.juslan.ej-gv.net.

Los/as interesados/as tendrán un plazo de 10 días desde la publicación de la reseña de la Resolución provisional en el BOPV para reclamar ante la Dirección de Recursos Humanos sobre cualquiera de los datos contenidos en la bolsa. Las reclamaciones serán resueltas dentro del mes siguiente a aquel en que finalice el plazo para formularlas, mediante Resolución del Director de Recursos Humanos, que se notificará individualmente a cada interesado/a.

*Undécimo.* – Relación definitiva de admitidos/as en la bolsa.

La bolsa definitiva será expuesta en los mismos tablones que ha sido expuesta la provisional y la reseña de la Resolución definitiva será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

No cabrá modificación alguna en la bolsa definitiva, fuera de los supuestos contemplados en la Orden de 20 de noviembre de 2003 (BOPV de 26 de diciembre de 2003), modifica por Orden de 21 de febrero de 2005.

*Duodécimo.–* Recursos.

La presente convocatoria no agota la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Justicia en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Asimismo, cuantos actos administrativos se deriven de la presente convocatoria podrán ser impugnados ante la Ilma. Sra. Viceconsejera de Justicia en los casos y formas establecidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2005.

El Director de Recursos Humanos,
JULIÁN ASURMENDI BARRIO.

# I. ERANSKINA / *ANEXO I*

## LAN POLTSAN SARTZEKO ESKAERA / *SOLICITUD DE INCLUSION EN LA BOLSA DE TRABAJO*

☐ PROZESU KUDEAKETA/ *GESTIÓN PROCESAL*
☐ LAGUNTZA JUDIZIALA/ *AUXILIO JUDICIAL*
☐ PROZESU TRAMITAZIOA/ *TRAMITACIÓN PROCESAL*
☐ AUZITEGI-MEDIKUAK/ *MÉDICOS FORENSES*

1. NORBERAREN DATUAK / *DATOS PERSONALES*

NAN/*DNI* ..........

Izen-abizenak / *Nombre y apellidos* ..........
Jaioteguna / *Fecha de nacimiento* .......... Tfnoa/*Tfno* ..........
Helbidea/*Domicilio* ..........
Udalerria/*Localidad* .......... P.K/*CP.* ..........

2. ATXIKI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA / *DOCUMENTACIÓN A APORTAR*

NAN-aren fotokopia / Fotocopia del DNI; Eskatutako tituluen fotokopia konpultsatua
*Fotocopia compulsada de la titulación exigida; Lan zerbitzuen egiaztagiria / Certificación de los servicios prestados.*

3. AURKEZTEN DEN TITULAZIOA / *TITULACIÓN QUE SE APORTA*

☐ Zuzenbide Lizentziatura / *Licenciatura en Derecho*
☐ Medikuntza eta Kirurgia Lizentziatura
*Licenciatura en Medicina y Cirugía*
☐ Beste lizentziatura bat / *Otra Licenciatura*
☐ Diplomatura edo Lizentziaturako hiru kurtso
*Diplomatura o tres cursos de Licenciatura*
☐ Bigarren Hezkuntzako Batxilergoa edo baliokidea
*Bachiller en Educación Secundaria o equivalente*
☐ Bigarren Hezkuntzako graduatua edo baliodikea
*Graduado en Educación Secundaria o equivalente*
☐ Eskola ziurtagiria edo baliokidea
*Certificado de escolaridad o equivalente*
☐ Euskarako ziurtagiria / *Certificado de euskera*
☐ Lege- etaAuzitegi-medikuntzako espezialitatea
*Especialidad en Medicina Legal y Forense*
☐ Psikiatriako espezialitatea / *Especialidad en Psiquiatría*
☐ Traumatologiako espezialitatea / *Especialidad en Traumatología*
☐ Anatomia Patologikoko espezialitatea
*Especialidad en Anatomía Patológica*

4. POLTSAREN LURRALDE EREMUA / *ÁMBITO TERRITORIAL DE LA BOLSA*
Lurralde bat edo bi, edo Autonomia Erkidego osoa adierazi / *Indicar uno o dos territorios o toda la CAPV*

☐ EAE/*CAPV* ☐ ARABA / *ÁLAVA* ☐ BIZKAIA ☐ GIPUZKOA

5. Justizia Administrazioko Funtzionarioen Kidegoan sartzeko zein deialditan parte hartu den adierazi / *Señale en qué convocatorias para el ingreso en el Cuerpos de Funcionarios de la Administración de Justicia ha participado.*
(Adierazi kidegoa eta deialdi-urtea eta ariketei dagokiena x batez adierazi / *Indique Cuerpo y año de convocatoria y marque con una x lo que proceda en los ejercicios)*

| Kidegoa<br>*Cuerpo* | Deialdi urtea<br>*Año convocatoria* | Lehen ariketa. 0 punto baino gehiago<br>*Primer ejercicio Más de o puntos* | Lehen ariketa gaindituta<br>*Primer ejercicio aprobado* | Bigarren ariketa gaindituta<br>*Segundo ejercicio aprobado* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

6.Hizkuntza eskakizun hauek egiaztatzeko egingo diren probetan parte hartu nahi dut (gehienez bi adierazi) / *Deseo participar en las pruebas que se realizarán al efecto para acreditar los siguientes perfiles lingüísticos: (Señalar dos como máximo):*

☐ 1. HE/*PL 1* ☐ 2. HE/*PL 2* ☐ 3. HE/*PL 3* ☐ 4. HE/*PL 4*

Behean izenpetzen duenak lan poltsan onartzea eskatzen du, eta .......... Aginduan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten du. / *El abajo firmante solicita su inclusión en la Bolsa de Trabajo, y declara que reúne las condiciones exigidas en la Orden* ..........

Data eta izenpea / *Fecha y firma*

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARI JAUN TXIT ARGIA / *ILMO.SR. DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS*

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

EGINDAKO ZERBITZUEN EGIAZTAGIRIA / *CERTIFICACION DE SERVICIOS PRESTADOS*

| LEHENENGO ABIZENA<br>*1.º APELLIDO* | BIGARREN ABIZENA<br>*2.º APELLIDO* | IZENA<br>*NOMBRE* | NAN<br>*DNI* |
|---|---|---|---|

| ORGANO JUDIZIALA<br>*ORGANO JUDICIAL* | LOTURA (1)<br>*VINCULO (1)* | KIDEGOA<br>*CUERPO* | NOIZTIK<br>*DESDE* | | | NOIZ ARTE<br>*HASTA* | | | GUZTIRA<br>*TOTAL* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | E | H | U | E | H | U | E | H | U |
| | | | *D* | *M* | *A* | *D* | *M* | *A* | *D* | *M* | *A* |
| | | | | | | | | | | | |

Bulego Judizial honetan dauden aurrekariak goian aipatzen diren datuekin bat datozela egiaztatzen dut.
*Certifico la exactitud de los datos anteriores, que concuerdan con los antecedentes obrantes en esta oficina judicial*

Data eta izenpea / *Fecha y firma* (2)

(1) I- Bitarteko funtzionarioa / *Funcionario interino.*
T- Aldi baterako lan itunpeko kontratatua / *Contratado laboral temporal.*
C- Karrerako funtzionarioa / *Funcionario de carrera.*

(2) Fiskal Nagusia, Idazkaria, Institutoko Zuzendaria, Bulego Burua /*Fiscal Jefe, Secretario/a, Director/a de Instituto, Gerente/a de la Oficina.*

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARI JAUN TXIT ARGIA / *ILMO.SR. DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS*